

Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan

Enpresak gure bezero garrantzitzuenetarikoa dira, beraz haiekin kontaktua mantentzea ezinbestekoa izango da.

Guk gure helburua eta funtzionamendua azalduko diegu, haiek zer onura lortuko dituzten jakin dezaten. Horrez gain, enpresa bakoitza aztertuko dugu, bakoitzari baldintza ezberdinak eskainiko diegulako.

Haiei enpresara bideratutako ezinduekin arazoak baldin badaude guk konpondu egin behar ditugu, enpresa honekin egindako lana hobetzeko eta arazorik ez sortzeko.

Enpresek gure zerbitzuetaz edozer behar badute guk eskainiko diegu edo hobetu ahal den aspektu bat ikusten badute kontuan hartuko dugu haien iritzia.

Hori guztia kontuan hartzeko, hurrengo faktoreak kontuan hartu behar ditugu:

1. LAN INGURUNE EGOKITUA

- **Irisgarritasuna:** Sarrera automatikoko ateak, arrapala edo igogailu egokiak.
- **Ergonomia (tresnak, altzariak eta makinak nola diseinatzeko, erabiltzen dituzten pertsonen hobeto egokitzeko):** Lanpostuak gorputz-mugikortasun desberdinetarako egokitzea (adib., altuera erregulatzeko mahaiak)
- **Seinaletika bisuala eta akustikoa:** Langile itsu edo gorrentzako, adibidez, braille hizkian edo kontraste handiko koloreetan seinaleak, eta ohar akustikoak.

2. LANEKO BALIABIDE TEKNOLOGIKOAK

- **Tresna teknologiko espezifikoak:** Pantaila-irakurleak (Screen Readers) itsuentzat. Teklatu alternatiboak edo botoi handiagoekin saguak. Ahots bidezko kontrol-sistemak.
- Lan-fluxuak automatizatzeko softwareak, prozesuak errazteko.

3. FORMAKUNTZA ETA TREBAKUNTZA

- **Lanbide-prestakuntza:** Ezinduen beharrak kontuan hartuz sortutako prestakuntza-programak (adib., diseinu grafikoa, programazioa, administrazioa, etab.).
- **Gizarte-trebetasunen tailerrak:** Talde-lanean eta komunikazioan parte hartzeko laguntza.

- Baliabide fisikoak:
Hasieran lokal bat alokatuko dugu gure zerbitzuak eskaintzeko. Horretarako adibide bat bilatu dugu: <https://www.idealista.com/inmueble/104861203/foto/11/>
Ezinduei lana bilatzeko lokala egokia izan behar da, igogailuarekin, pasabide zabalekin eta altzari moldagarriak izan behar ditu. Komunak, seinaleak eta teknologiak irisgarriak izan beharko dira. Argiztapen uniformeak, akustika egokia, segurtasun neurriak eta kokapen erosoak bermatuko dira. Araudi guztiak betetzea ezinbestekoa izango da antolakuntza bat egoteko.
Onuragarria izango litzateke ordenagailu batzuk edukitzea eta imprimagailu bat, gestioak egiteko momentuan baliagarria izan daitezkeelako.
- Baliabide intelektualak: Gure enpresa Bizkai osotik hedatzeko webgune bat edukitzea funtsezkoa izango da. Horretarako, informatikari bat kontratatuko dugu webgunea sortzeko. Behin webgunea sortuta, Informatikariari 1000€ emango diogu. Webgunea gure enpresan interesa dutenei informazioa eskuragarri edukitzeko helburua izango du.
- Giza baliabideak

Isklusio laneko adituak: Pertsona ezinduen beharrei eta eskubideei buruz ondo jakin behar duten profesionalak kontratatu. Hauek, enpresei lan-ingurune inklusiboak sortzen laguntzen diete.

Psikologoak: Pertsona ezinduen gaitasunak ebaluatzen lagunduko dutenak izango dira, baita euren lan-ingurunean egokitze laguntza psikologikoa eskaintzen dute.

Lan-Orientatzaileak: Ezinduek lana aurkitzeko laguntza emango dietenak, lanpostu egokiak bilatuz.

Formazio irakasleak: Langileei lanbide gaitasunak eta trebetasunak irakasten dizkiete.

- Finantza baliabideak: gure enpresak gastuak eta inbertsioak egiteko erabiliko dituen baliabideak dira, hau da, dirua, baliozko ondasunak... Normalean lana edo eskubideen bitartez eskuratzen dira eta zorrari aurre egiteko dira.

Finantza baliabideen barruan hainbat talde sailkatzen dira:

1. Baliabide propioak; hasierako kapitala, irabaziak eta akzioak dira.
2. Kanpo finantzaketa baliabideak: zorrak, kreditu lerroak, eta Leasing (mailegu-alokairuak/ arrandamenduak) dira.
3. Bestelako finantza baliabideak: subentzioak, diru-laguntzak, inbertsio kapitala, eta crowdfunding (finantzamendu kolektiboa)

Finantza baliabide hauek konbinatuz eta finantzaketa plan on bat osatuz, gure enpresa errendimendu gorenera heldu daiteke.